



INNOVATION AWARDS

by BIEMH

16. BIEMH BERRIKUNTZA AURRERATUAREN SARIAK

- Makina-erremintako berrikuntzari saria.
- Osagai, osagarri eta tresnen berrikuntzari saria.
- Fabrikazio aditiboko berrikuntzari saria.
- Manufacturing aurreratuaren inguruneetako digitalizazioaren eta automatizazioaren berrikuntzari saria.
- Fabrikazio aurreratura bideratutako startup berritzaileenari saria.
- Inportatzaile batek aurkeztutako erakusketa-proposamen berritzaileena saria.



16. BIEMH Berrikuntza Aurreratuaren Sariak

BIEMHen ordezkaturako fabrikazio aurreratuko teknologien sektoreak espiritu berritzaile indartsua du. Azken aurrerapenekiko abangoardian mantentzeko gaitasunari esker, ekonomiako sektore estrategikoei behar dituzten soluzioak eskain diezazkiekete lehiakortasuna hobetzeko.

Testuinguru horretan, fabrikazio aurreratuko enpresek egunero berritzen dute teknologia doiagoak, malguagoak, azkarragoak eta jasangarriagoak garatzeko.

BIEMHen berrikuntzaren aldeko apustu irmo eta etengabe honetatik abiatuta, aurtengo sektoreari egin dizkieten ekarpenengatik nabarmendu diren enpresak aintzatetsi nahi ditugu BEC eta AFM CLUSTER antolatzaileok.

AFM CLUSTER Espainiako fabrikazio aurreratua ordezkatzeko duen erakundea da. Zortzi industria-elkartek osatzen dute, eta 800 enpresa baino gehiago dira. Enpresa horietan, 20.000 pertsonatik gora dihardute lanean, eta 5.000 milioi euro baino gehiago fakturatzen dituzte. Enpresa bazkideetan nazioartekotzea, industria- eta teknologia-garapena, posizionamendu estrategikoa eta pertsonen gaikuntza sustatzea du helburu.

Hona hemen AFM CLUSTERRA osatzen duten zortzi elkarteak:

- Makina-erreminta eta fabrikazio aurreratuko teknologiak, AFM Advanced Manufacturing Technologies.
- Fabrikazio aditiboa, ADDIMAT.
- Esku-erremintak, burdingintza eta industria-hornikuntza, ESKUIN.
- Mekanizazioa eta eraldaketa metalmekanikoa, AFMEC.
- Oinarri teknologikoko enpresak eta startupak, UPTEK.
- Fabrikazio aurreraturako teknologia adimendunen enpresak, digitalizazioa, automatizazioa eta robotika barne, STECH.
- Makina-erremintaren inportatzaileak, AIMHE.
- Lotura- eta konformazio-teknologiak, FEX.

Horrez gain, AFM CLUSTERrek industriadako 100 zerbitzu-enpresatik gora ditu partner gisa, eta zenbait elkarte-erakunderen kide da nazioartean, besteak beste, CECIMO, ECTA, CEO edo CELIMO. BECekin batera, nazioarteko azokak eta ekitaldiak antolatzen ditu, bai eta bere ekitaldi propioak ere, hala nola CMH, Fabrikazio Aurreratuko eta Makina-Erremintako Biltzarra eta AFM Industry Summit.

Bestalde, BEC (Bilbao Exhibition Centre)

azokak, batzarrak, biltzarrak, kultura-, kirol- eta musika-ekitaldiak antolatzen dituen sozietatea da. 150.000 m² ditu erakusketetarako zutaberik gabeko 6 pabiloitan banatuta.

Malgutasun eta moldakortasun handiari esker, BEC barruti ezin hobeia da edozein ekitaldi antolatzeko. BEC! Batzarrak eta Ekitaldiak erakundeak 18.000 m² ditu zenbait mailatan banatuta. Erabilera anitzeko gunea da, eta komunikazio-sistema aurreratuenak ditu.

Barruti handi hau bestelako instalazio bikainekin osatzen da, hala nola BIZKAIA ARENA, erabilera anitzeko barrutia edozein ikuskizun jendetsu hartzeko.

1992. urtean egin zen sari hauen lehenengo ediziotik, AFM eta BECekin lankidetzan aritu da Bizkaiko Foru Aldundia (DZren bidez eta gaur egun, BEAZen bidez).

Eremua eta Gaiak

Sari honetan parte har dezakete honako produktu eta zerbitzu hauek:

- Metalak eta material konposatuak eraldatzeko fabrikazio aurreratuko makinak edo sistemak, baldin eta honako hauetan lan egiten badute: material-harroketa, deformazioa, prozesu fisiko-kimikoak edo teknika horien konbinazioa, baita lehen aipatu diren makinekin eta fabrikazio-sistemekin lotutako osagaiak, osagarriak eta erremintak ere.
- Prozesu aditiboen bidez piezak fabrikatzeko sistemak edo soluzioak, honako hauek barne: ekipoak, osagaiak, software garapenak, material berriak, industriako soluzio edo kasu praktikoak teknologia horiek erabiltzeko.
- Fabrikazio-sistema automatizatueta, adimendunetan eta/edo robotizatueta (bai softwarearena, bai hardwarearena) konektatutako eta integratutako soluzioak.

Fabrikazioko teknologiaren sektorearekin lotutako enpresek aurkeztu ahalko dituzte goian aipatutako produktuak, baldin eta sozietatea eta ekoizpen-zentroa Espainian badaude. Ezingo dira aurkeztu honako produktu hauek:

- Multinazionalen filialek edo atzerriko lizentziapean fabrikatutakoak.*
- Fabrikatzailearekin zerikusirik ez duten I+Garen unitateek edo zentro teknologikoek aurkeztutakoak.

Sarian parte hartzeko ezinbestekoa izango da, batetik, produktuak, zerbitzuak edo soluzioak fisikoki erakusgai egotea Makina-Erremintaren Biurteko 33. edizioan Bilbao Exhibition Centerren 2026ko martxoaren 2tik 6ra eta, bestetik, sariketaren aurreko 2 urteetan merkaturatua izatea eta sariketa honetan aurrez saririk ez jasotzea.

* Baldintza ez da aplikatuko kategorია berrian: Inportatzaile batek aurkeztutako erakusketa-proposamen berritzaileena saria.

Gainera, edizio honetatik aurrera, sarien kategoría berria izango da.

“Enpresa inportatzaile batek aurkeztutako erakusketa-proposamen berritzaileena saria”

Kategoria honetan, fabrikazio aurreratuko produktuen/ekipoen enpresa inportatzaileak aurkeztu ahalko dira, produktu edo ekipo horiek Espainiatik kanpo ekoitzi badira eta BIEMHren 33. edizioan erakusgai badaude.

Sariak

Sei sari daude:

1. Makina-erremintako berrikuntzari saria.
2. Osagai, osagarri eta tresnen berrikuntzari saria.
3. Berrikuntzako saria fabrikazio aditiboaren arloan.
4. Manufacturing aurreratuaren inguruneetako digitalizazioaren eta automatizazioaren berrikuntzari saria.
5. Fabrikazio aurreratura bideratutako startup berritzaileenari saria. *
6. Inportatzaile batek aurkeztutako erakusketa-proposamen berritzaileena saria**

Sariak emateko “ebaluazio-irizpideak” atalean aipatutako alderdi guztiak modu orekatuan txertatu beharko dira.

Gainera, epaimahaiak aipamen bereziak eman ahal izango ditu kontuan izandako alderdiren batean.

* “Fabrikazio aurreratuko startup berritzaileenaren saria” kategorian, epaimahaiak startup berritzaileena hautatuko du lehenengo lau kategoriatan (makinak, osagaiak, aditiboa eta digitalizazioa nahiz automatizazioa) hautagaitza aurkeztu duten guztien artean.

** “Inportatzaile batek aurkeztutako erakusketa-proposamen berritzaileena saria” kategorian, aurrerago “Ebaluazio irizpideak” atalean zehaztutako irizpideetan oinarrituta baloratuko du epaimahaiak.

Epaimahaia

AFM Clusterrak eratuko du epaimahaia gutxienez 5 eta gehienez 12 kiderekin. Ebaluatzen den diziplina bakoitzeko adituek parte hartuko dute, eta aurretiaz jakinaraziko da. Hona hemen beren eginkizunak:

- Aurkeztutako proiektuaren kalitateari buruz erabakitzea eta, bidezkoa bada, hautatzea.
- Sariaren atal bakoitzean produktuaren sailkapenari buruz erabakitzea.

Epaimahaiak, eztabaidatu ondoren, akta idatziko du sarien esleipena justifikatuz. Erabakiak epaimahaiko kideen gehiengo osoz hartuko dira.

Epaimahaiaren erabakia eztaba daezina izango da, eta Makina-Erremintaren Biurteko 33. edizioan jakinaraziko da 2026ko martxoaren 2tik 6ra. Sariak ekitaldi publiko batean entregatuko dira 33. edizio horretan.

Ebaluazio-irizpideak

Epaimahaiak kategoria bakoitzean ebaluatuko du honako irizpide hauen arabera (“Inportatzaile batek aurkeztutako erakusketa-proposamen berritzaileena” kategorian izan ezik, azpian zehazten diren berariazko irizpideak erabiliz ebaluatuko baita):

- **Berrikuntzako irizpide teknologikoak (puntuen % 50)**

Produktuaren berrikuntza teknologikoarekin lotutako alderdiak dira; soluzio tekniko berritzaileak baloratuko dira eta, batez ere, bizi-fase guztietan produktua erabiltzen duenaren lehiakortasuna areagotuko dutenak.

- **Jasangarritasunaren eta segurtasunaren irizpideak (puntuen % 30)**

Segurtasunarekin eta jasangarritasunarekin lotutako alderdiak hartuko dira kontuan. Produktuaren bizi-ziklo osoan ingurumen-aztarna murrizteko ekarpenak baloratuko dira.

Produktu bakoitzak segurtasunaren arloan dagokion indarreko legedi aplikagarria bete beharko du. Sarira aurkeztutako produktua prototipoa bada, segurtasuna bete izanaren zerrenda (kontrol-zerrenda) eta aplikaziokoak zaizkion araudiak baino ez ditu aurkeztuko fabrikatzaileak.

- **Diseinuari, alderdi formalei eta komunikazioari buruzko irizpideak (puntuen % 20)**

Soluzio formalak eta estetikoak baloratuko dira, betiere produktuaren itxura orokorra hobetzen laguntzen badute, eta kontuan hartuko dira, besteak beste, honako alderdi hauek: akaberak, koherentzia formala, ingurunearekin elkarrekintza, ikusizko erakargarritasuna, etab.

Era berean, produktuak bere eginkizuna nola komunikatzen duen baloratuko da, bai eta produktuaren identifikazioa eta irudia ere, nahiz markarena nahiz enpresarena. Horrez gain,

eginkizunari dagokionez, berezko balioak transmititu beharko ditu, besteak beste, sendotasuna, pisua, egonkortasuna, maila teknologikoa, zehaztasuna, kalitatea, etab.

Edizio honetan sartu den kategoria berriaren kasuan (**Inportatzaile batek aurkeztutako erakusketa-proposamen berritzaileena saria**), epaimahaiak honako irizpide hauek ebaluatuko ditu:

- Teknologikoak Orotara aurkeztutako produktuak/ekipoak eta duten teknologia, emandako zerbitzu osagarriak barne (automatizazioa, piezaren/prozesuaren soluzioak, digitalizazioa, mantentze-lanak) (% 40).
- Jasangarritasunarekin eta segurtasunarekin lotutako alderdiak, bidezkoak direnean (% 20).
- Markaren posizionamendua, helarazitako mezuak, standaren kalitatea eta aurkezpena (% 40).

Eskatutako dokumentazioa

- Produktuaren/soluzioen deskribapen laburra, ebaluazio-irizpide bakoitzerako ekarpenak zehaztuz (ebaluazio-irizpide bakoitzari erantzuteko zehaztasuna eta xehetasuna baloratuko dira). Gehienez 4 orrialde.
- Produktuaren argazki digitala / Standaren irudikapen grafikoa.
- Argibideen eskuliburu – kapitulu aipagarriak, segurtasunari eta ergonomiari buruz (bidezkoa denean).
- “CE” aitorpena (bidezkoa denean).

Aurkeztutako materiala itzuli egingo da sariak erabaki ostean.

Partaidetza-kuota

Edizio honetako partaideek 750 euroko kuota ordaindu beharko dute izena emateko* (BEZik gabe). Izenemate horrek hautagai izateaz gain, honako eskubide hauek emango dizkie:

- Enpresaren logotipoa eta sarira aurkeztutako produktuaren/zerbitzuaren/standaren aipamena argitaratzea BIEMH, BEC eta AFM Clusterraren webguneetan. Xede horrez, bakoitzak berariaz atal bat sortuko dira BIEMH Berrikuntzako Sarietarako.
- Enpresaren aipamena BIEMH, BEC eta AFM Clusterrak sariari buruz editatzen dituzten komunikazio guztietan (txostena eta prentsa-oharrak).

- Antolatzaileak elementu adierazle bat entregatzea, hautagai dela azaltzeko, enpresaren standean jar dadin 2026ko Biurtekoan 2026ko martxoaren 2tik 6ra.
- Enpresari gonbita luzatzea Biurtekoan egingo den sari-emanaldiaren erakunde-ekitaldian egon dadin.

* Startupen kasuan, % 30eko deskontua egingo zaio izena emateko kuotari. Kontsultatu startup izateko baldintzak.

Partaidetza-baldintzak

- Eskariak aurkezteko epemuga: **2026ko urtarrilak 16.**

ESKARIAREN INPRIMAKIA: <https://www.afm.es/es/formulario/premios-de-innovacion-2026>

- Dokumentazioa jasotzeko epemuga: **2026ko otsailak 6** (dokumentazioa posta elektronikoz bidaliko da).
- Harremanetarako pertsona: Marian Blanco (marian.blanco@afm.es – 943 309 009)

Antolatzaileak



Laguntzailea

